



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2008-01-05

VIURTEA 1.328.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## «Parte-hartzea bultzatuz» 2008ko udal aurrekontua aurkeztu du EAEk

**VILLABONA** Herenegun egin zuten aurkezpena Gurea aretoan; diru laguntzak igoko direla nabarmendu dute


**HERRITARRAK** Aurrekontuak osatzeko herritarrei inkesta bat helarazi zieten; «oso egokia» izan dela azaldu dute »



Atzoko Topaketako finalerako bat, Elorri pilotalekuan. I.GARCIA

## «BORROKATUAK» IZAN DIRA EGUBERRIETAKO TOPAKETAKO FINALAK

**ALEGIA** Murua anaiak, Agirre eta Irazustabarrena, Larrea eta Luzuriaga eta Ormazabal eta Arandia izan ziren irabazleak »



Atzoko magia ikuskizunaren une bat. I.GARCIA

## Magiaz bete da udaletxeko areto nagusia

**ANOETA** Eguberrietako egitarauaren baitan, magia ikuskizuna izan zuten atzo, gaztetxoek »

### 200 ANIMALI EZBERDIN BAINO GEIAGO

TXAKURRAK, KATUAK, BAPATZEAK, HURDIAK, KROKODILOAK, KATAGORRIAK, UNTZIARAK, KUXAK, HAMSTERRAK, JERRIBOAK, ZELALETAKO TXANGURTUAK, PETAIURDIAK, TXORRIAK, MARRAZTIARAK, ANIBOIAK, ARRAIN TROPICALAK, ITSAS ARRAINAK, UR HOTZETAKO ARRAINAK, ORINDOAREAK.

AKULARIARAK, TERRARIARAK, KARDIAK, ESTANKEAK, MARIKETEAK : ANIKULARRITZA, SALMENTA, GARRAIDA, INSTALAZIOA, MANTENIMENDUA.

MOTA GUZTIRIK OSAGARRI, JANARI, LIBURU ETA ALDOKARIARAK.

www.arratxo.com 943 533 888 autobus geltokian aurrean, BERGARA (GIPUZKOA)



**arratxo**  
maskotak  
esagerririk gabe zerbitzuak



Patxi Aierbe eta Inaki Irazabalbeitia Aralarako kideak atzo Tolosako Kultur Etxean eskaini zuten prentsaurrekoan. A. IMAZ

## Aralarrek Gipuzkoako aurrekontuetan lortutako ekimenak azaldu ditu

**Politika** » Inaki Irazabalbeitia eta Patxi Aierbek Gipuzkoako aurrekontuen inguruan hitz egin zuten.

### ASIER IMAZ

Aralar alderdiak prentsaurreko eskaini zuen atzo Tolosako Kultur Etxean, «iragan berri den Gipuzkoako aurrekontuak osatzeko prozesuan, Arralarren ekimenez Tolosarentzat garrantzitsua izango den egitasmo bat abian jartzeko urratsak eman direlako». Prentsaurrekoan Inaki Irazabalbeitia eta Patxi Aierbe, Aralarreko batzarkidea, agertu ziren.

### «Tolosa eta euskara»

Inaki Irazabalbeitiak azaldu duenez, helburu jakin batzuk kontutan hartuta, Aralarrek «aurrekontu aurrerakoiago, sozialago eta eskaltzaleagoak bideratzea izan da gure lanaren helburua». Tolosarentzat «zenbait lorpen garran-

tzitsu» lortu dituztela aipatu zuen Irazabalbeitiak, adibide bezala eta Tolosa eta euskara aintzakotzat hartuta, Abastos merkatuaren etorkizunari buruzko proiektua izan zuten hizpide: «XK, Euskararen Normalizazioarako Zentro ize-na eman dioguna eta euskararen normalizazioaren alorrean erreferentzia izateko helburu duena. Ezker Batua-Aralar udal taldearen eskariz, Gipuzkoako Aldundiaren 2008ko aurrekontuetan diru-partida bat izango da zentro horren bideragarritasuna aztertzeko».

Aralar taldeko kidearen ustez, «Tolosaldeko euskararen normalizazioari beste lorpen batek ere eragin egingo dio». Kasu honetan, UEMA edo Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea «indartzeko diru-partidak» lortu dituztela aipatu zuen Inaki Irazabalbeitiak. «Batetik Kultur Elejira egiteko diru-partida %50 hazi da eta, bestetik, Gipuzkoako Diputazioaren aurrekontuetan lehen aldiz, UEMAREN ohizko jarduna finantzatzeko diru-partida bat egongo

da. Horri esker UEMAK mankomunitatea osatzen duten herriei euskararen normalizazioaren alorrean zerbitzu hobek eskaini ahal izango dizkie».

### Tolosaldean eragina

Tolosaldean neurri zuzena izango omen duten beste neurri batzuk, Patxi Aierbe, Aralarreko batzarkideak, azaldu zituen.

Gizarte politiketan, buruko gaitasunak edo etxez etxeko laguntzetarako partidak «nabarmen» igoko direla aipatu zuen Aierbek.

Garraio Publikoa hobetzeko plangintza «ia bere osotasunean» txertatu omen da aurrekontuetan, «%40ko beherapenak izango dira lehenengo bidetik hasita edo 10 urtetik beherako umeek» doan izango dutela aipatu zuen, autobus foru liniatan. Azkenik parke naturalak kudeatzeko egitura bateratu bat sortzeko lorpena aipatu zuen.



## Bigarren eskuko azokak, arrakasta

**LARRAUL** » Herriko gazteek bigarren eskuko azoka egin zuten eta «kizugarriko arrakasta» izan du. Salmentak oso onak izan dira eta eskulan tailerren askorek parte hartu dute. Lortutako dirua, Aiztondoko beste herrietako gazteekin batera eski irteera batera joateko erabiliko dute. Udaleren laguntza zein Herriko Ostatuaren eskertu dute. Bailara mailan hurrengo ekintza, hilaren 13an izango da. 12-16 urte bitarteko gazte guztiarentzat eskalada eta gazte topagune bat antolatuko dute. HITZA



## Alururen zozketan 804a saridun

**IBARRA** » Urterto bezala Alurr Dantza Taldeak zozketa antolatu du Gabonetan. Aurtengo zenbaki saritua 804a izan da eta txartelaren jabeak Jon Zubeldia, Amaia Intxaurburu eta Lur Intxaurburu txikia dira. Irabazleek bi sari zituzten aukeran, dirua ala Ramon Garcia disenatzailearen bi jantzi, euskal dantzarekin lotuak. Azken sari hau aukeratu dutela azaldu zioten Eli Nosellas Dantza Taldeko kideari. HITZA

## Laburrak

### Ekaintza bereziak gaur eta bihar Merkatu Txikian

**TOLOSA** » Laskorain Ikastolak antolatutako hamabigarren Merkatu Txikiak bihar itxiko ditu atek. Hori dela eta, antolatzaileek salneurri bereziak jarri dituzte gaur eta bihar. Liburuak, oinetakoak eta erropak euro batean erosteko aukera egongo da eta berokiak eta txaketa hiru eurotan. Orduetegiari dagokionez, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

### IV. Urte Zahar Krosean 70 korrikalari inguru

**BERASTEGI** » Abenduaren 31n IV. Urte Zahar Krose lehiatu zen. Urepele gazteen Elkarteak antolatuta 70 korrikalarik parte hartu zuten. 12 urte arteko etan, Mikel Matxinea eta Garazi Otxandorena izan ziren lehenak. Helduetan Joseba Saizar eta Idoia Labaien izan ziren garaileak eta beteroan mailan Jose Matxinea. Gazteenaren saria Josu Goikoetxeak irabazi zuen, 5 urterekin egin baitzuen ibilaldia.

### Etzi eta datorren ostegunean batzarrak

**ALEGIA** » Datorren astean bi batzar egingo dira Alegian. Lehena, etzi, «herriarentzat garrantzitsua den gai baten inguruan izango da», haur da, Alegiako Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziari buruz. Bigarren batzarrak berriz, ANV-EAEK ostegunean egingo duena izango da, eta beran «gaur egungo une politikoa eta ilegalizazioa izango dira aztergai», Alegiako EAEko kideek jakinarazi dutenez.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



EAE-ANVko kideek aurrekontuaren proposamena publikoki aurkeztu zuten Gurea aretoan. I. GARCIA

# EAEk «parte-hartzea bultzatuz» aurkeztu du 2008rako udal aurrekontua

**Villabona** » Atzerapenik eskatzen ez bada, hilaren 16ko osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatuko dute proposamena

IMANOL GARCIA

Villabonako Udalean agintean dagoen EAE-ANV taldeak 2008rako udal aurrekontuaren aurkezpen publikoa egin zuen herenegun arratsaldean Gurea aretoan. Aurrekontua osatzerakoan «ahalik eta modu parte-hartzailenean» izan behar duela «oso garbi» dute la adierazi zuten EAEko kideek. Horrela, udal teknikariek eta gizarte eragileekin hitz egiteaz gain, herritarrei zuzendutako inkesta bat baliatu dute aurrekontua osatzeko.

Ia 7,1 milioi euroko aurrekontua izango du Udalak 2008rako. Kopuru horren arabera egin du proposamena EAEk eta hilaren 16ko osoko bilkuran, atzerapenik eskatzen ez badute beste alderdiek, eztabaidatu eta bozkatuko da.

Diru laguntzak igokio direla nabarmendu du EAE taldeak, euskara-hezkuntza, kultura, kirola eta ongizate alorretan. Euskara-hezkuntza atalean %12,50 igoera izango da eta datozen lau urteetarako euskararen inguruan plan bat osatzeko asmoa agertu dute, tartean Udalaren barne funtzionamendu guztia euskaraz egitearena.

Kulturari dagokionez, kultur egitarauari «bultzada» emateko asmoz, 150.000 euro aurreikusten dituzte aurtengorako. Kirolari dagokionez, 50.000 euro emango dira diru laguntzetan, oraindik erabakigabe badago ere nola banatuko den. Ongizate atalean, etxetzeko laguntza, zein gizarte larrialdiatarako laguntzen kopurua igotzeko asmoa dute, baita kale hezitzaileei zuzendutako diru kopurua ere. Bestalde, Ongizate Batzordean berrikuntza izango da Ema-kumea eta Berdintasuna izeneko

## » SARRERAK

Zuzeneko zergak	1.160.546
Zeharkako zergak	297.297
Tasak	423.067
Diru laguntza arruntak	4.014.020
Ondarezko sarrerak	47.274
Kapital transferentziak	532.960
Pasibo finantziarioak	592.147

**Guztira 7.067.314**

## » GASTUAK

Zor publikoa	487.379
Udal gobernua	179.434
Bulegoak	924.672
Zerbitzuak	1.180.725
Udalzaingoa	362.661
Gizarte Zerbitzuak	1.256.270
Euskara eta Hezkuntza	691.603
Hirigintza	737.105
Kultura	901.638
Kirola	197.385
Ingurumena	148.440

**Guztira 7.067.314**

## » INBERTSIOAK

Argiteria	20.000
Asfaltatzak	36.000
Badenak	30.000
Jubilatuena lokaleko obra	300.000
Gazteleku, azterketa	3.000
Eskolako obrak	125.000
Izartu	610.614
Musika eskola obrak	15.200
Musika eskola aurreproiek.	6.000
Gurea zinemaren berogailua	24.000
Aizkardiko lokaleko obra	50.000

atala eta 17.000 euro bideratuko dira bertara.

Diru laguntzetan berritasuna ere izango da Nazio Elkartasuna izeneko atala. Besteak beste, Udal biltzari, Bai Euskal Herriari ekimenari eta Nazio Ertabidaguneri zuzendutako diru laguntza horiek. 20.000 euro aurreikusi dute horretarako. Ingurumenari dagokionez, planteamendu berritzaile

lea egin nahi dute eta «dextenteko igoera» proposatzen dute atal horretarako.

## Inbertsioak

Aurtengorako aurreikusi diren inbertsio handienak Izartu programak, Santiago Egoitzaren handitzeak eta jubilatuek elkartaren lekualdeketa hartuko lukete. Azken puntu horretan lekualdatzea egungo Txermineko lokalatik Zentrora egingo litzateke, baina oraindik gai hori ez dago guztiz itxia. Musika eskolan obrak egitea, Katea etxean gazteleku baten aurreproiektua egitea eta Salvadorean Udalarentzako izango den 300 m<sup>2</sup>ko lokalean ludoteka bat egitea dira beste proiektu batzuk.

Bestalde, EAE taldeetik garrantzia ematen diote «herriari aberastasuna ematen dioten elkarte eta eragileei», ohiko diru laguntza emateaz gain, beste laguntza mota batzuk ematea. Horren adibide jarri dute Aizkardiri utzitako lokala eta bertan egingo diren obrak.

## Inkestaren erantzunak

Esan bezala, aurrekontuak osatzerari begira, herritarrei inkesta bat helerazi zitzaion. 80tik gora izan dira erantzun dutenak eta EAEtik azaldu dutenez, «oso ondo etorri zaigu ariketa hau egin izana. Izan ere, dozenaka begik lau begik baino askoz gehiago ikusten dute, eta herriari dauden arazoak ederki asko detektatzen dira inkestaren erantzunetan».

Erantzun horietan gehien aipatu dena aparkalekuen gaia izan da. Aurten gai hori aztertu nahi du EAEk eta horretarako lan talde finko bat osatzeko asmoa dute. Besteak beste, gai hauek ere asko aipatu dira: trafikoa zorroztzako kontrolatzea, badena eta oinezkoen pasabide biltzari, pabimentatzeak eta asfaltatzak, argiztatze gehiagoren beharra, haurren parkeen hobekuntza, kontenedore gehiago jarritzea, kaleengarbitzeta eta zakur jaken arazoa.



## Udaletxeko aretoa magia beteta

**ANOETA** » Magia izan zen nagusi atzo arratsaldean Anoetako udaletxeko areto nagusian. Haurrek ere erruz erantzun zioten deialdiari. Eguberrietako egitarauaren baitan, gaurkorako, zirko eskola egongo da plazan 11:00etatik 13:00etara. Arratsaldean, Errege Magoen kabalgata 19:30ean hasiko da. I. GARCIA



## Herriko haur eta gaztetxoak, aktore

**IRURA** » Jende ugari joan zen atzo herriko haur eta gaztetxoek prestatutako antzezlanak ikustera. Tinketea jendez gainezka egon zen eta benetan txalotuak izan ziren aktore lanetan aritu zirenak. Gaurko egunarekin bukatutako da Eguberrietako Egitaraua. 18:00etan, San Miguel plazan, txokolate beroa eta bizkotxoak banatuko dituzte. 18:30etik aurrera, kalez kale Errege Magoak eta opari banaketa. I. GARCIA

## Laburrak

### Gizonezko bat hil da, trenak harrapatu ostean

**ANOETA** » Gizonezko bat hil zen herenegun arratsaldean trenak harrapatuta. Ertzaintzak azaldu duenez, Anoetako trenbide gaineko pasabidean gertatu zen, Villabonarentzako zihon aldiriko tren batek gizonezkoa harrapatu zuenean.

**Oharra.** Berrobin Errege Magoak 20:00etan jaitsiko dira herriko plazara.

**Blogteka.** TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZAn diseinua aldatzeaz gain, kazetaritza egiteko modua ere aldatu da, gizarte eragileei eta oro har irakurleei parte-hartzeko aukera gehiago zabaldu. Horren adibide dira webgunean dauden elkarrean, ikastetxeen eta abarren blogak.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

### Txirrisklas festa bertan behera gelditu da

**ANOETA** » Anoetako Gaztetxean gaurko antolatutako Txirrisklas Festa bertan behera gelditu da. Horrekin batera antolatuta zegoen kontzertua ere bertan behera gelditu dela azaldu dute Gaztetxeo kideek.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Autoa.** Volkswagen Passat. 2004. 1.900 TDI. 130 zaldi. 620 72 76 91.

### AURKITUAKOAK

■ **Zakurra.** Collye arrazakoa, zuri beltza eta ernea. Berastegin aurkitu dute. 686 96 70 31.



Txindoki mendian magalean aurki daitekeen nekazaritza giroko paisaia da. Inguru hauetan oraindik bizirik jarraitzen du baserri munduak. © IANIZ

# GAZTEAK ETA BASERRIA

**Nekazaritza** » Lehen sektoreak bizi duen egoera aldatu nahian eta baserri mundua gaztetu asmoz sortu zuten Gazteek plana 2005ean.

## ENERTZIMAI

Baserria. Zer da baserria? Animateak, baratzak, fruta-arbolak, traktorea, gardia... Duela ez urte asko arte noiz ez du izan edo ezagutu baserria? Geroak asko aldatu dira, eta gaur egun, gazteak ez dira berdin. Azken urteetan eta denok dakigun moduan, baserriak bizi dauden egoera ez da samurra.

Geroz eta baserriak gutxiago daude, geroz eta baserriak zaharragoak daude eta geroz eta gutxiago dira baserriak bakarrik bizitzea erabakitzen dutenak. Gehienetan, gaurtik bizi izan da baserri-tarrek egiten duten lana. Gutsuko dugu naturaz eta honek eskaintzen dizkigun paisaiez gozatzeko,

mendiak garbi izatea, zehiak berde izatea... Baina jarri al gara izotz pentsetan zergatik ikusten ditugun oraindik zehiak berde eta baserri mundua, batziki eta, landa garapena... Gazteak instalatzen laguntzen diete, lehenik eta behin guretzat eta nekazaritza arloan.

Berartzen diren gazteen gehiengoak, plan finantziaz izan daitezke, auzokari eta denak zehar nahi duten eta proiektu zaharretan gerturatu dira. Behin proiektua aurkeztu ostean, enpre-planak paperean idatzarazten diete, «gazteak argi ilus dituzten, hau da, murrizketa oraindik egin ahal izan dezaten. Ondoren, proiektu komisio batetik pasatzen da eta bertan bakoitzaren dute benetan bideragarritasunak ba ote

duen ala ez. Hala bada, laguntza ekonomiko ematen zale». Hasieta baserriak, laguntza eskaintzen diete Gazteek programan sartzen denari «behin plana aurkeztean laguntza etengabea eta pertsonalizatua eskaintzen diegu. Gure langileak teknikoak oso onak dira eta urteak daramatzate horietan. Monitorio bezala jartzen dizkizugu».

Ena behin bakoitza jasota dagoeneko prest egongo da bere proiektu hori gauzatu lanean hasiko.

Jarriaian, «lehenengo instalazioak laguntza neurririk ematen izaten da eta ondoren, lurraren berrantolaketa aukerak aztertze behar izaten dira. Sarritan arazoak izaten dituzte lur zatia berrantolaketa eta esku hartzen l' d'elako haren mantentzen jartzen gara prozesua errezeko», azaldu du Jesus Calvillik.

**Pentsalera aldaketa**  
Lehen sektorea ez duete enpresa bezalako asarritasun nahia baina jardueran hasi eta sartzen direneko pentsalera aldaketa bat izatea eskatzen diete. «Azken finean garbi eduki behar dute enpresa sortzen ari direla eta enpresa bezala funtzionatu behar dutela gauzak ongi joan daitezkeen». Duten helburu nagusia profesionalak sortzea da.

Ez litzateke garzik egongo, gizaritza osoaren baitan emango balitz pentsalera aldaketa. Tolosaldea eta Leizorako nekazaritza eta abeltzainek aurrera egin dezaten eta lehen sektorearen gure arteko desagerua ez dadin, denek jarri behar dugu zerbait gure aldeko. Batziki, lanean gogor saiatu behar dute baserriaren aurrera egiteko, beste batziki lehen sektorearen sartu eta lan egin ahal izateko eta azkenik eroskoak, bertako produktuen aldetik apostatu egitea dakigugu.

## «Gau batzuetan galdetzen diot nire buruari non sartu naizen, baina ilusioz nago»

MARIA JESUS HIDALGO » Gaztegia

**Asteasu** » Gazteek planari esker, Gorua Goienea baserriari gazte egitea jarriko dute; Goiene gaztea ekoltziko dute.

## EMAZ

Maria Jesus Hidalgo (Logroño, 1970) Asteasu Gorua Goienea baserriari bizi da. Lehen zuen lana utzi eta bere senarrarekin batera, gazte egitea marrazten jartzen ari da. Jada, hasiak dira lehen gazteak egiten. Urte honetan bertan probatu ahaliko da Goiene izenarekin aurkituko dugun gaztea.

**Nolatan erabaki duzu nekazaritza munduan sartzea?**  
Nire senarrak, behiak zituen eta bank bat purinariaren arazoak dela, jardueraz aldatzea erabaki zuten behiak kendu eta ardiak jarri. Nik besterik konturatu lan egin izan ez nirean. Logroñokoan nahiz eta ezkondu aurretik handik hona etortri nintzen eta Asteagarrako Renault konfesionarioan ari nintzen lanean. Senarrak duela hamar urtekin zuen buruan gazte egitea,



© IANIZ

rena, bere ametsa da eta erabaki zuten gazte egitea jarriko zuela. Ordian nik galdetzen nuen zertan ari nize besterentzat lanean, noretzat egin behar zateke? Aso pentsatzen omen erabakinean. Adaketa oso handia da eta bizitzeko era erabakidatu zait. Oraindik gau batzuetan galdetzen diot nire buruari non sartu naizen baina nireganetik oso urrun dagoen gila den arren ilusioz nago. Azken finean, senarrarengatik sartu naiz. Ez nuen kanpoin lan egin eta etxora etortri ondoren lanean aritu nahi,

ez eta, persona bat kontratatu behar izateko, nik egin behar zateke. **Nola izan zenuen Gazteek planaren berri?**  
Senarrak sartu ninduen. Abolkuak emateko eta bank bat ematen dituzten laguntza eragatik izan zen, negozio berria martan jartzea diru asko kostatzen baita.

**Zer eskaintzen duzu Gazteek?**  
Senarrak nire proiektuaren egiteko zozonon berritasunarekin, hasi, sozietate bat egin nahi genuela. Hortik aurrera era guzietako informazio eman ziguten, ikastaro-

ak, izan ditzakegun laguntzen berri, zerbait deibotzen beharko dugun, informazio asko.

**Eta nola doo prozesua?**  
2006ko maiatzean utzi nuen Asteagarrako lana ezin bainan ikastaroak egiteko jai gehiago hartu. Ondoren, Kordoban ikastaroak egiten hasi nintzen eta 2006ko abenduak behiak kendu ginen. Abenduak maiatzera bitartean, enpresa proiektu egiten hasi ginen, hai eta uhiluzaren proiektuak ere zeren behin uhiluzak ezberdina da. Bestetik, zenbat ardi behar ditugun proiektu duina izan dadin, ez zere elaboratu behar dugun... Jerdekeria ematen du baina ez da horrela. Eta Goiene sozietateak izaki maitatzen sortu ginen bezar prozesuan gaude eta tutore bat dituguneko onerok.

**Baserriari nola zaudete?**  
Uhiluzak jada egon da eta bertan daude ardiak. Baina, oraindik gazte egiteko materiala falta zaigu eta diru laguntza behar du ere bai. Ezin dugurte urte gaildu eta jada hasi gaude Aian gazte egite. Espero dut hilabete gutxi barru, etxean egiteko moduan izatea.

## «2009. urtetik aurrera nik egingo ditudanak barazki eta fruitu ekologikoak izango dira»

XABIER MANTEROLA » Nekazaritza

## » DATUAK

### 2005. urtea

**Gipuzkoan**, 18 lagun sartu dira.

• Gizonak: 11

• Emakumeak: 7

**Tolosaldian**, 3 lagun sartu dira.

• Gizonak: 2

• Emakumeak: 1

### 2006. urtea

**Gipuzkoan**, 14 lagun sartu dira.

• Gizonak: 7

• Emakumeak: 7

**Tolosaldian**, 3 lagun sartu dira.

• Gizonak: 2

• Emakumeak: 1

### 2007. urtea

**Gipuzkoan**, 34 lagun sartu dira.

• Gizonak: 14

• Emakumeak: 20

**Tolosaldian**, 6 lagun sartu dira.

• Gizonak: 3

• Emakumeak: 3

• Gizonak: 1

• Emakumeak: 5

**Irrua** » Fruta-arbola eta barazkiekin lan egiteko lursailak erosi du eta egokitzale lanetan ari da mekanikari lana utzita.

## EMAZ

Xabier Manterola (Lasarte, 1966) Irrurako bere harritan aurkitu dugu lanean. Mekanikari lana utzi eta buru belarri ari da, erosi duen lur saillean. Era guzietako fruta-arbolak ipini ditu eta barazkiak ekoltziz lan egiteko asmo du.

**Zer biluzituta sartu zara nekazaritza munduan?**  
Beti dardak baserri bat edo jarri nahi izan dit marrazten. Orain dela hamar urte, ilastaro bategin nuen eta bertan zintu zituzdan interes eta bank bat orduz geroztik ibili naz proiektu honen azterki. Lur zuzenean hila hasi nintzen eta azkenean Irrurako hau aurkitu dit. Oso garesti daude eta ez da erraza.

**Eta zergatik barazki eta fruitu-erabakidatu?**  
Berez ere, gauduarekin lan egin nahi izan geroz lursail asko behar delako. Nik 40.000 metro inguru



© IANIZ

erosi ditut eta prestatzen ari nintzen lurra hainok 16.000 metro dauka. Horietatik, orainoz, produkturako hamar-hamabi mila metro jarriko ditut marrazten eta her zerbait interesko egin behar dago, gauduarekin ez dago ezker, beraz, fruta-arbolak eta barazkiak bertan egingo dit lan.

**Zer ekoltziko dute zehazki?**  
Barazki eta fruituak ekologikoak dira. Burokraziako paperekin egiten dit. Burokraziako paperekin egiten dit. Burokraziako paperekin egiten dit. Zalantza baten bidez dudanaren ere berriragaitzen dit. Bestalde, lurra-nerri analisak ere berririk egiten

dizkidate eta alde horietatik oso ondo dago. Bestela ez dakizku nondi, hasi eta lurra analisak behar ditu eta eskerrik horri, fosforoak faha zuela jakin nuen.

**Nola daramazte prozesua?**  
Oraindik asko falta da. Bekerari naitz eta mantso da. Lur zatia erosi nusean 4 metroko sasia beste-rik ez zegoen. Dena garbitu nuen eta nukiak handia zegoenez lurrak mugitu behar izan dit. Lurra ere ez dute ezozin bezala mugitu eta ekarri dudana ere oso lur ona da eta honetaz lan handia eman dit. Orain lurrak hobetzen ari naitz eta ez dute ezozin bezala mugitu eta ekarri dudana ere oso lur ona da eta honetaz lan handia eman dit.

**Nola izan zenuen Gazteek programaren berri?**  
Diputazioa jain nintzen laguntza eskaintzara eta bertan eman zaiden Gazteekin informazioa.

**Zer eskaintzen duzu?**  
Laguntza ematen dit. Frakosko tutore bat jarri didate eta berak proiektu nola garatu laguntzen dit. Burokraziako paperekin egiten dit. Zalantza baten bidez dudanaren ere berriragaitzen dit. Bestalde, lurra-nerri analisak ere berririk egiten



Joxe Mari Murua kirolari beteteranoa, Peña Otaño elkartearen atariko barandari helduta, Hernanin. ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRES

Kirolari beteteranoa da Joxe Mari Murua. Altzon jaio zen. Orain dela hiru urte urrezko domina irabazi zuen Beteranoen Munduko Txapelketan; bere bizitzari buruz aritu da solasean.

## Kirola bizipoz denean

### IDOIA ETXEBERRIA (BERRIA)

**K**orrika dator, parrokiako azken kanpai-hotsekin batera. Puntu-puntu. Irribarrez. «Goizean hiru ordu egin ditut gimnasioan, eta gero mendibuelta. Azkar-azkar bazkaldu, eta masajistarengana». Joxe Mari Muruak egun mugitua izan du. «Ez dut aspertzeko astirik. Justu kontrakoa!». Peña Otaño elkarte atea ireki du. Barrura sartuta, egurrezko mahai luze batean eseri da: «Hauxe da nire lekua. Astean bitan hemen bazkaltzen dugu, eta musean egiten dugu». Baina ez da jan-edanean ibili zalea, ez horixe. Kirola du aspalditik bidelagun, otordurik oparoena baino betegarrirago.

Hanka goraino jasotzen du, eta gomazko gerria dauka. 66 urterekin, sasoi batean dago. Umetan bezalatsu. Altzon, baserrian, ez zegoen alferkerian jarduterik: «Hamai-ka senide ginen; ni txikiena. Zartako guztiak hartua!», dio barrez. Mutil koskorra zela bazekien segan, bilar metak egiten, behiak jezten, semaurra ateratzen... «Hiru idi pare ezagututa nago ni etxean! Eskolara ez ginen joaten; eta joaten ginenean, jolasten ibiltzen ginen: pizarrekin ahari-talkan».

19 urterekin Donostiara joan zen, erdararik jakin gabe. Borda baserria. Belarra ontzera. Behiak gobernatzera: «200 litro esne egunero partitzen ziren, eskuz jertzita. Goizean baserrian eta arratsaldean harategian ibili nintzen, base-

rriko semearekin». Halaxe hasi zen harakin lanbidea ikasten. Hainbat tokitan ibilizen Hernanin harategia zabaldu aurretik. «Hutsetik hasi nintzen». Baina abantaila bat bazuen: «Guk, baserrian sega zorrozten ikasita, labana zorrozten genuen ondo!».

«Lana, lana eta lana». Horixe egin du, erretiratu artean. «Harategian 40 urte, egunik galdu gabe. 12-14 ordu lanean aritu naiz, beti. Batzuetan 17 ordu ere bai! Pena pixka bat badut lagunekin ez dudala gehiegi egoterik izan». Negoziojarri zuenean, sei urte zeramatzen andregaiarekin. Maritxu,

**«Lana, lana eta lana».**  
**Horixe egin du erretiratu artean; harategian 40 urte egunik galdu gabe».**

**26 aldiz egin du Behobia, urtero egiten du San Silbestre eta beste hainbat lasterketa ere.**

Usurbilgoa. «Eta esan nion: 'Ez badoa ondo, ni ez naiz ezkonduko! Nik ez zaitut engainatu nahi'. Gaizki pasatzera, ni bakarririk». Eta ezkondu ziren. Eta bizimodua aldatu zitzaion: «Kirolik ez nuen egiten lehen ere. Baserrian ahariak genituen, apusturako. Haiek paseatzen ibiltzen nintzen, ipurdiko batzuk hartuz. Baina ezkontzean, lasaitu egin nintzen: botila sagar-

doa bazkaltzen... Gizendu nintzen, hartu nituen 20 kilo, eta aitona zaharra! Ezertarako gogorik gabe... Orduan hasi zitzaidan azido urikoa, tentsioa... Urte eta erdian erori nintzen tranpan! Eta medikuak esan zidan: '30 urterako bi makulurekin zara. Aldatu bizimodua, e!'».

Baita aldatu ere. Kostata, hori bai: «Hasi nintzen ogia utzi, pixka bat mendira... asko sufritu nuen! Ezin kilorik kendu! Korrika ateratzen nintzen, eta denak: 'Murua erotu dek!'. Lotsa ematen zidan, eta gauzez ateratzen nintzen! Eta egun batean esan nuen: 'Zeini inporta dio!' Eta hasi nintzen 14:00etan lanetik atera eta korrika saioa egiten». Orduetik ez da gelditu. 26 aldiz egin du Behobia. Urtero egiten du San Silvestre. Eta beste hamaika herri lasterketa ere bai. «Bi maleta gongoz dira kamisetekin beteta etxean!». Duela urte bi urrezko domina irabazi zuen Beteranoen Munduko Txapelketan.

Emazteak beti lagundu dio: «Babestu eta bultzatu! Ikaragarri gustatzen zaio ikustera joatea. Berak entrenatzen minduen: apeaderoko eskailerak gora eta behera... 'Akatuko naun!', esaten nion», gogoratu du, irria ahoan. «Nik ez dut biziorik: ez txikitzea, ez apustua... Aste barruan lana, eta asteburuetan mendia, pilota, bizikleta».

**Orain ere baserritarra**  
Baserriari lotuta jarraitzen du. «Zizurkil partean baserri zahar bat

daukagu; behiak, astoak eta behorrra. Eta asko joaten naiz, kontu egitera: ogia, garagarra, kadukatutako pastelak... nahikoa janda daude gure astoak!». Umeak ere gustuko ditu: «Etxe jantzi egiten dute». Bizitzan inportanteena poza dela dio Joxe Mari Muruak. «Osasunak ez dit huts egin, eta beti bizipoz handia izan dut. Ni biharkoari begira egoten naiz beti!». Aurten Behobia lasterketa semearekin eta 15 urteko bilobarekin egitea da bere ilusioa.

Hiztuna da, atsegina. Umortetsua. «Pixka bat burugogorra: hasitakoa bukatu beharrekoa naiz». Hernanira iritsi zuenean, ez zuen inor ezagutzen. Egun, herritar asko ditu lagun. «Bezeroek omenaldia egin ziguten harategia uztean. Txapelajari zidaten! Hunkigarria izan zen». Kirolaren bidez ere «girono oneko jendea» ezagutu egin du.

### » HAINBAT DATU

- **1941. urtea.** Altzon jaio zen. Hamaika anai-arreben artean gazteena zen bera.
- **1967. urtea.** Ezkondu egin zen. Alaba eta semea dituzte, eta baita lau biloba ere.
- **1991. urtea.** «Lehendabiziko maratonia egin nuen; beldurra nuen ez ote nuen bukatuko! Huraxe egiteko ilusioa nuen».
- **2005. urtea.** Urrezko domina irabazi zuen Beteranoen Munduko Txapelketan. «Sorpresan handia izan zen, eta oso gustura oso pozik sentitu nintzen».

## Mendialdeko etorkizuna aztertze bilerak martxan

### NAIARA GARZIA

Hasi berri den urte berriari begira Mendialdeko Agenda 21 delako prozesua daramaten arduradunek jada badute egitasmorik, zonaldean herritarren parte-hartzea bultzatzeko zenbait bilera antolatu baitituzte.

Terra-Prometea lantaldea da proiektu aurrera eramaten aridena (Zorione Aierbe, Gurutze Santxo eta Itziar Montejo), etabertatik azaldu dutenez, «azaro amaieran foro parte-hartzaile ireki bat ospatu genuen Leitzaan, azaroaren 22an, Batzar Aretuan. Erantzuna ez zen, ordea, guk espero genuena izan, jende gutxi gerturatu baitzen». Bilera horretara jende gutxi azaldu zenez, beste saiakera bat egitea erabaki dute. «Udalekin eztabaidatu eta a doste dugunez, ezinbestekoa iruditzen zaigu saiakera berri bat egitea foro ireki honi indar gehiago emateko». 8 udalek osatzen duten zonaldea handia denez, foro irekia bi zatitan banatzea erabaki dute, bata Leitzainguruko herrietatik eta besteak Lekunberri ingurukoentzat.

### Foroak Leitzaan eta Lekunberri

Foro bakoitzarekin bi bilera ospatuko dituzte, eta Lekunberriko zonaldearekin hasiko dira. Lehenengo bilera datorren asteazkenean egingen dute, hilaren 9an, eta bigarrena otsailaren 7an, 19:00etatik 21:00etara.

Leitzaaldean urtarrilaren 15ean elkartzeko dira eta otsailaren 26an, 19:00etatik 21:00etara, Leitzaiko udaltxeetan. Bai Lekunberriko bileretan, bai Leitzaikoetan gai berberak aztertuko dituzte, beraz, Mendialdeko Agenda 21 8 udalderrien arteko proiektu bateratua denez, Leitzaan ere foroak egingen dituzten arren, nahi duena asteazkenean ere Lekunberri joan daiteke. Arduradunek azaldu dutenez, «lehenengo egunean hirigintza, ingurumen eta kudeaketa gaiak landuko ditugu, eta bigarrenean, ekonomia eta gizarte arlokoak, hau da, osasuna, hezkuntza, kultura, euskara...».

Mendialdeko Agenda 21 proiektu aiazko ekainean jarri zuten martxan. «Azken hilabeteetan prozesu tekniko bat egin dugu, baina kaleko herritarren eta gizarte-eragileen iritzia ere barneratu nahi dugula eta hori da foro hauen helburua».

### Foroak, zertarako?

Zorione Aierbe Terra-Prometea lantaldeko kidea da, eta foro hauen parte-hartzearen garrantzia azpimarratu du. «Zer lotu nahi dugun? Mendialdea nola dagoen, diagnosi lanetan bizilagun eta gizarte mailako ikuspegia barneratzea, aurrez egindako lan tekniko osatuz».

# Eguberrietako Pilota Topaketako finalak, «borrokatuak»

**Pilota** » Murua anaiak, Agirre eta Irazustabarrena, Larrea eta Luzuriaga eta Ormazabal eta Arandia izan ziren irabazleak

**N. GARZIA**

Atzo VI. Eguberrietako Pilota Topaketan Altzo, Ikaztegieta, Alegia, Amezketeta eta Bedaioko

haurrak lehiatu ziren Alegiko Elorri pilotalekuan. Norgehiagokak 16:00etan hasi ziren eta 18:00 pasata amaitu zen sari banaketa.

Jose Luis Zabala antolatzaileak azaldu duenez, «giroa polita izan da. Partidak amaitu ondoren ume guztiei oparia eman genien, pilota eta egutegi bana, parte hartu duten guztien argazkiarekin, eta azken hau oso gustura hartu

zuten». Infantilei, honetaz gain, afaritxo bat oparitu zieten.

Zabalak partidak «borrokatuak» izan zirela adierazi du. «Alebinetan ere, markagailuan alde handiagoa izan den arren, partida borrokatuak izan da».

**Emaitzak**

Prebenjaminetan Mikel eta Iñaki Muruak Oier Zubeldia eta Eneko Agirrerren aurka irabazi zuten (12-

11); benjaminetan, Aratz Irazustabarrena eta Aitor Agirre izan ziren irabazleak 12 tantorekin, Gorka Altunak eta Kepa Mendezek 8 tanto lortu baitzituzten. Alebinetan, Eñaut Larreak eta Mikel Luzuriagak alde handiarekin irabazi zieten Beñat Belokiri eta Manex Karrerari (16-5) eta haurkategorian, Iñigo Ormazabalek eta Beñat Arandiak 9 tanto atera zizkieten Iñaki Landa eta Mikel Oiarbideri (18-9).

Partidak amaitu ondoren denak jolasean jarraitu zuten, oparitutako pilotarekin. «Hori da helburua, ibili daitezela», dio Zabalak.

## Laburrak

### Konzentrazioa eta elkartasun afaria, gaur

**LEITZA** » Gaur, 18:30ean herriko plazan konzentrazioa eginen dute Etxeratek deituta, «Dispersiorik ez! Hau ez da demokrazia» lelopean. Ondoren, 21:30ean eskolako jantokian elkartasun afaria eginen dute. Txartelak Torrea tabernan saldu dituzte (24 euro) eta afaria hagitz oparao izanen da.

### Herriko ihotek prestatzeko ikastaroa

**LEITZA** » Gabonak amaitu ondoren herriko inauteriak segituan iristen direnez eta aurten atsareen kalejira antolatzen ari direnez, atsaretzeko norberak bere txapela egiten ikasteko ikastaroa eginen dute gaur Aurreran, 09:00etan. Bertara joan nahi duenak guraizeak, kola eta papera eraman beharko ditu.

### Aurrerak bigarren itzuliko lehenengo partida, gaur

**LEITZA** » Gaur Aurrerak bigarren itzuliko lehenengo norgehiagoka jokatu du Lagunak taldearen aurka, 12:00etan, herrian bertan. Lehenengo itzuliko partidari Lagunak taldeak 1-0 emaitzarekin irabazi zuen, eta lehenengo postuan doa 34 punturekin. Aurrera, berriz, zortzigarren doa, 23rekin.



Eguberrietako pilota topaketan finalak batez atzo Alegiko Elorri pilotalekuan. IMANOL GARCIA

## Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



**FABIAN RUIZ MOZO**  
JAUNA

EAE-ANVko Alazne zinegotziaren aita

Anoetako Udala



**ANOETA**  
2008ko urtarilaren 5a



**FABIAN RUIZ MOZO**  
JAUNA

Zure irriparra zure alaitasuna gure arnasartean bizirik dabil. Ez adiorik gero arte baizik.

Kuku elkarteko bazkideak



**ANOETA**  
2008ko urtarilaren 5a

**FABIAN RUIZ MOZO**

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin geratzen da.

Zure alaba Alaznerean lagunak



**ANOETA**  
2008ko urtarilaren 5a

**FABIAN RUIZ MOZO**

Joan zara, baina gure artean izango zaitugu beti.

Jexux Marilu, Iosu eta Mikel



**ANOETA**  
2008ko urtarilaren 5a

**FABIAN RUIZ MOZO**  
(Alazne kidearen aita)

Ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik.

Anoetako ezker abertzalea



**ANOETA**  
2008ko urtarilaren 5a

**FABIAN RUIZ MOZO**  
JAUNA

Luluaga Atxega sendia



**ANOETA**  
2008ko urtarilaren 5a

**FABIAN RUIZ MOZO**

Herenegun hil zen, 54 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Bere emaztea: Maria Jesus Luluaga; seme-alabak: Maialen eta Jose M. de la Rosa, Alazne eta Aitzol Esnaola; ama: Maxima Mozo (Vicente Ruiz-en alarguna); amaginarreba: Martina Atxega (Jose Mari Luluagaren alarguna); anai-arrebak: Vicente eta Pili Izquierdo, Lurdes eta Jose Maria Gurruchaga; ezkon anai-arrebak, osaba-izebak, ilobak, lehenegusak eta gainerako ahaidak. Haren animaren alde oitutz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitetzela GAURLARUNBATA, arratsaldeko SEIAK ETA ERDIETAN, Anoetako SAN JOAN BATAILATZAILAIA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Sukome, 1-3 B  
Oharra: Gorpuzt beila Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan egongo da, GAURLARUNBATA arratsaldeko 16:30ak arte.



**ANOETA**  
2008ko urtarilaren 5a



**FABIAN RUIZ MOZO**  
JAUNA

Hire lagunak



**ANOETA**  
2008ko urtarilaren 5a



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tososaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tososaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tososaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tososaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tososaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tososaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tososaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tososaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tososaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Anoeta.** Zirko eskola (malabareak, akrobazia, oreka jokuak...) plazan 11:00etatik 13:00etan.
- **Alegia.** Ume jolasak plazan 11:00etan; Alegiko dantzari txiki taldearen emanaldia eta txokolate beroa denentzat.
- **Tolosa.** Laskorain ikastolaren Merkatu Txikia, Kultur Etxean.

### Erakusketa

- **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehena izan ezik.
- **Tolosa.** Jabier Villarreal Armenariz *Paralelo 42* argazki montajean erakusketa ikusgai dago, Aranburu Jauregian 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehena izan ezik.
- **Amezketak.** Amezketako udal-erakundearen AHTri buruzko informazio panelak jarri dituzte, eta baita ibilbideari buruzko informazioa ere. Gaur arte egongo dira bertan ikusgai panelak. Amezketako Gazte Taldeak antolatutako ekimena da.

### Zinema

- **Tolosa.** *Michael Clayton* filma 19:30ean eta 22:30ean Leidorren.
- **Villabona.** *Un funeral de muerte* filma 22:30ean, eta *La brujula dorada* filma 12:00etan eta 17:00etan, Gurea zinemaren.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martín Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Plaza, MT. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



Gaztetxoak tentuz entzun zuten sumendien inguruan jakin beharrekoak. ASIERIMAZ

'Sumenditik Ozeanora' izeneko tailerlean hartu zuten parte atzo eguerdian Tolosako Haur Liburutegian, 20 gazte inguruk; gehiago ikasteaz gain, ederki igaro zuten.

## Zientzialari zoro bilakatuta

### ERREDAKZIOA

**E**derki igaro zuten atzo eguerdian gaztetxoek Tolosako Haur Liburutegian. Hain zuzen ere, zientziaren txoko bilakatu zen atzokoan Errota, eta gauza asko ikasteko aukera izan zuten, eta dibertituz gainera.

8 eta 14 urte bitarteko 20 gazte inguru gerturatu ziren *Sumenditik Ozeanora* izeneko tailerlean parte hartuz. Irakasleak era jostagarrian azaldu zizkien sumendiei buruz jakin beharrekoak, eta era prektiko baten bidez, gaztetxoek euren sumendiaren erupzioa sortzeko aukera ere izan zuten. Esperintzia bitxia, beraz.



Material ugari erabili zuten gaztetxoek esperintziak egiteko. A. IMAZ

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Maria Dolores (Anoeta).** Zorionak eta muxu handi bat zure senarraren partetik.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

**NEREX**  
Lentzeria

Bodiak  
Pijamak  
Kamisoiak  
Kamisetak  
Batoiak  
Pikardiak  
Tangak

Erremontari Kalea, z/g • TOLOSA  
Tel.: 943 67 16 30